

HEZKUNTZA BULETINA



EUTSI PALESTINA

Hernaniko
Hezkuntza
Plataforma

Aurkibidea

Palestina	3
Euskara Eguna	4
Hezkuntza Eskola	6
Martxoak 8	8
Jangela eredia	10


Palestina

2025-2026 ikasturtea hastearekin batera, gure haurrak ere badira ekimenaren baitan, ikastetxeetan astero kontzentrazioak burutzeko deialdia egin zen Euskal Herri osoan. Hernaniko Hezkuntza Plataformatik, iazko ikasturtean adostasunez babestu genituen ekimen hontatik ikas komunitateetara luzatutako deiak eta oraingoan ere, Palestinaren aurkako genozidioa salatzen eta deialdia egin genuen. Ikastetxe desberdinetan bakoitzak bere elkarretaratzeko deitu beharrean, herriko hezkuntza komunitate osoa batzeko asmoz, deialdiak bateratu genituen, eta lau asteetan zehar, Zinkoeneako errotondan kontzentrazio jendetsuak burutu genituen.

Urriaren 25ean manifestazio nazionalarekin bukaera eman zitzaion kontzentrazio dinamika honi. Ez zaio ordea hango egoerari inolako bukaerarik eman. Kontrara, denbora luze hontan jasaten ari diren erasoen ondorioak pairatzen ari dira hango haurrak, eta orohar, herritar guztiak. Palestinar herriari gure elkartasuna adierazten jarraituko dugu beharra dagoen artean. Hernaniko hezkuntza komunitateak bidegabekeria honen aurrean bat egiten jarraitu beharko dugu aurrerantz ere!



EUSKARAREN EGUNA



Aurten ere, Hernaniko Hezkuntza Plataformatik, euskararen egunerako ekimen bateratu bat egitea adostu zen herriko ikastetxe guztien artean. Oraingoan, LH5 eta LH6an dauden ikasleekin, scape-room bat egiteko ideia proposatu zen eta denen artean antolatzeari ekin genion!

Ekintza hau aurrera eramatea erronka polita

bihurtu zitzaigun... Ikastetxe guztietako haurrak nahastea helburutzat hartuta, taldeak era nahasian antolatzeak uste baino eragiketa matematiko konplexuagoak egitea ekarri zuen, eta honek buruko min pixka bat eragin arren, ederra izan zen emaitza!

Ikastetxe guztietatik, ikasleak ikastetxe

LH5 eta LH6an dauden ikasleekin, scape-room bat egiteko ideia proposatu zen

guztietara joateko zatitu, eta ikastetxe bakoitzaren ikasle kopuruekin proportzioak mantenduz, adin tarte honetako ikasle gehienek, herriko beste ikastetxeak ezagutu ahal izan zituzten. Artean, autobusean Ereñotzura joatea ere egokitu zitzairen batzuei, ikasle multzo txiki bati bere ikastetxean gonbidatuei harrera egitea egokitu zitzairen bitartean. Egokitutako ikastetxean “tour” txiki bat eginez ezagutu ahal izan zituzten eraikinak barrutik eta gustora bete zuten anfitrioi papera batzuek, bixitari paperean ere gustora asko ibili zirelarik besteak.

Ondoren scape roomari hasera eman zioten, talde txikitari banatuta. Ekintza hau aurrera eramateko, DBH4ko ikasle eta irakasleak animatu ziren guztia antolatzen hauek ere ikastetxe desberdinetan banatu zirelarik. Euskara eta munduko hizkuntzak izan zen scape room-aren gaia eta talde bakoitzari 7 proba prestatu zizkieten.

EUSKARAK
365
EGUN

EUSKARAREN
EGUNA

Taldeak azpitaldeetan zatitu eta... ederki pasa zuten proba guztiak gaingitzea ahalegintzan!

Zorionak berriz ere ikastetxe guztiak elkarrekin aritzeko halako gogoarekin aritzeagatik! Une batean erronka zaila izan zen arren, irtenbideak elkarrekin bilatuz, elkar nahastea helburutzat hartuz, ikasleek egun berezi bat pasa ahal izan zuten ahalegin horri esker! Euskara maitatzeko esperientzia erakargarri bat bizitzea lortu zen azken batean eta honek etorkizuneko euskaradunengan bere aletxoa utziko zuelakoan gaude. Zorionak denei egindako lanagatik eta... gure eskerrik beroenak scape rooma dinamizatzen aritu zirenen DBH4ko ikasle guztiei! Bejondeizuela!

Euskara maitatzeko esperientzia erakargarri bat bizitzea lortu zen azken batean eta honek etorkizuneko euskaradunengan bere aletxoa utziko zuelakoan gaude.

HEZKUNTZA ESKOLA

JARDUERA FISIKOAREN ONURAK ETA GARRANTZIA HAURTZARO OSASUNTSU BATERAKO



Aurtengo ikasturtean Hezkuntza Eskola bakarra antolatzen iritsi gara, baina ez genuen ikasturtea pasatzen utzi nahi azken urte honetan herrian kezka eta polemika sortu dizkigun gai garrantzitsu bat Hezkuntza Eskola saio baten bidez landu gabe: Eskola Kirolaren egoera eta etorkizuna.

Duela urtebete eta familia batek bultzatutako epaiketa prozesu baten

ondorioz, ordurarte indarrean zegoen Eskola Kirolerako arautegia bertan behera geratu zen eta geroztik, Eskola Kirolean jardutea ez da nahitaezkoa beste edozein kiroletan konpetitu ahal izateko. Legedi aldaketa honen ondorioz eta tamalez, gure susmo txarrenak konfirmatuz, aurtengo ikasturtean Eskola Kirolean izena eman duten haur kopurua oso nabarmenki jetsi da.

Bai Hernaniko Udalak eta baita herriko ikastetxe guztiak eta beste hainbat hezkuntza eragilek ere, apostu handia egin dugu azken 10 urteotan Hernanin, herri mailan, Eskola Kirolak duen garrantzian sinistuz eta Eskola Kiroleko programa bateratu, hezigarri zein erakargarri bat landuz elkarlanean. Beraz, derrigortasuna ezabatzean eta partaidetza aukerakoa

izatean errealtateak erakutsi dizkigun partaidetza datu eta kopuruak ikusita, hausnarketarako tartea hartzea ezinbestekotzat ikusi genuen.

Gai honek kolektibo ezberdinetan sortzen dituen iritzi “kontrajarriez” jabetuz, gaia ikuspegi orokorrago batetik lantzea pentsatu genuen jarduera fisikoak haurtzaro garaiko osasunean duen eraginarekin lotuz. Horretarako 3 arlo ezberdinetan adituak diren 3 pertsona gonbidatzea erabaki genuen hausnarketa hau arlo ezberdinetatik aztertzeko: Ekain Zubizarreta, EHuko irakaslea eta AKTIBOKI ikerketa taldeko kidea, Unai Asurmendi, Gipuzkoako Foru Aldundiko jarduera fisiko eta kiroletako planifikazio teknikaria eta Amaia Aristizabal, Hernaniko osasun zentroko pediatra.

Amaiak obesitateak eta sendentarisismoak

dakartzan arazo eta arriskuez hitz egin zuen eta mundu mailako, Espainiako eta Hernani eta bailarako datu esanguratsu zein kezkarriak erakutsi eta azaldu zizkigun. Ekain jarduera fisikoaren inguruan aritu zen, eskola zaharrak zer zioen eta gaur egungo ebidentziek zer dioten azaldu zuen. Errendimenduaren inguruan ere hitz egin zuen eta espezializazio goiztiarrak (kirol bakarra, klubean) eta multikirolak (Eskola kirola) dituzten eraginak azaldu zituen ikerketek erakutsi dituzten datuen arabera. Azkenik Unai, gaur egun martxan dauden egitasmo ezberdinek zer bilatzen duten eta nola saiatzen diren haurra erdigunean jarriz erantzun oso bat ematen gaur egungo errealtateari azaldu zigun.

Datu eta azalpen oso interesgarriak eman zizkiguten 3 hizlariak eta gustora egon ginen eztabaidan gai ezberdinak jorratuz eta hausnartuz.

Eskolara bertaratu ginen guztiok iritzi berekoak ginen Eskola Kirolak edo multikirolak duen garrantziaren sinismenean eta errealtateak erakutsitako datuen kezkatik hausnartu eta eztabaidatu genuen, baina oso gustora aritu ginen benetan.

Saioaren amaieran, gure artean gehien nabarmendu genuen galdera edo kezka ondorengo izan zen: arlo ezberdinetan egindako ikerketa zientifiko guztiak hain argi erakutsi badute Eskola Kirola edo multikirolaren filosofiak eta egitasmoak zenbat onura dituen (kirol bakarreko errendimendua edo espezializazio goiztiarrekin parekatuz), nola da posible azken urteetan legez indarrean sartu diren arau berriak kontrako norabidea indartzen dutenak izatea? Mila esker etorritako guztiei eta mila esker batez ere Amaia, Ekain eta Unairi.

MARTXOAK 8 - Emakumearen eguna

GURE AKELARREA



Emakumearen egunaren inguruan, aurtengo ikasturtean ere oso ekimen polita landu eta antolatu dute herriko ikastetxe guztiek elkarlanean, Hernaniko Hezkuntza Plataformaren baitan.

Ekimen hau egiteko asmoa martxoan adostu zen, Hernaniko Institututik DBH 2ko ikasleek egin zituzten kareta erakutsi eta horiek sortzeko egin zuten lanketa azaldu eta partekatu ondoren. Ikastetxe guztiei asko gustatu zitzaion ideia hau eta lanketa berdina

Ekimen hau egiteko asmoa martxoan adostu zen, Hernaniko Institututik DBH2ko ikasleek egin zituzten kareta erakutsi eta horiek sortzeko egin zuten lanketa azaldu eta partekatu ondoren.

LH 3-4ko ikasleekin egitea adostu zuten. Ekimen honetarako, ikasleek ikasgeletan sorginen inguruko lanketa feminista egin dute: iraganeko irudiak aztertu, historia berrikusi eta gaur egungo begiradatik hausnartu dute sorgin kontzeptuaren inguruan. Zer da sorgin izatea? Zein itxura hartuko luke gaur egungo sorgin batek? Hausnarketa honen ondorioz, ikasle bakoitzak irudi bat sortu du, GURE AKELARREA sortuz denon artean.

Lanketa polit honen emaitza herrian

zabaltzeko eta ikusgai jartzeko asmoarekin, kurtso bukaerarako erakusketa antolatzea ere erabaki genuen, nola ez ba! Gaia Emakumearen eguna izanik, erakusketarako toki egokiena Kulturarteko Plaza Feminista (KPF) zela iruditu zitzaigun eta beraiekin harremanetan jarrita, esker onez onartu ziguten eskaera.

Ekimena lantzea oso aberasgarria izan bada, erakusketa antolatzea ez da gutxiagorako izan! Larehundik gora kareta edo irudi kartulinetan banatu eta zintzilikatu behar genituen KPFn. Zenbat kartulina

sartzen dira? Zenbat kareta jarri behar dira kartulina bakoitzean? Alde bakarretik edo bi aldetatik? Kartulinak zintzilikatzeko pintzak erabiliko ditugu edo zuloak egingo ditugu eta soka pasa? Zenbat metro soka behar dira? Zenbat pintza? Nola antolatuko gara dena montatzeko?

Ekainaren 5eko goizean, adin tarte horietako ikasgela bakoitzeko ikasle ordezkari bana eta irakasle batzuk plazan elkartu eta guztien artean erakusketa montatu zuten elkarlanean. Herriko DBH 2ko eta LH3-4ko ikasleek egindako lan bateratu polit hau Kulturarteko

Plaza Feministan ikusgai jarri zuten eta ekainaren 8tik 19ra bixitari mordoa izan ditu; ikastetxetako ikasle/irakasle taldeak igaro dira txandaka alde batetik eta familiak zein herritarrak ere orohar, aukera izan dute lanak ikustera pasatzeko.

Oraingoan, hamaika kolorez bete dugu Kulturarteko Plaza Feminista, ariketa honen erantzun posibleekin bildu den aniztasuna ere isladatuta geratu delarik.

Mila esker hau posible egiten lagundu diguzuen guztioi eta zorionak denei egindako lanagatik!



Hernaniko ikastetxeetarako jangela eredu berrirako proposamena

Aurtengo ikasturtean Hezkuntza Eskola bakarra antolatzea iritsi gara, baina ez genuen ikasturtea pasatzen utzi nahi azken urte honetan herrian kezka eta polemika sortu dizkigun gai garrantzitsu bat Hezkuntza Eskola saio baten bidez landu gabe: Eskola Kirolaren egoera eta etorkizuna.

Duela urtebete eta familia batek bultzatutako epaiketa prozesu baten ondorioz, ordurarte indarrean zegoen Eskola Kirolerako arautegia bertan behera geratu zen eta geroztik, Eskola Kirolean jardutea ez da nahitaezkoa beste edozein kiroletan konpetitu ahal izateko. Legedi aldaketa honen ondorioz eta tamalez, gure susmo txarrenak konfirmatuz, aurtengo ikasturtean Eskola Kirolean izena eman duten haur kopurua

oso nabarmenki jetsi da.

Bai Hernaniko Udalak eta baita herriko ikastetxe guztiak eta beste hainbat hezkuntza eragilek ere, apostu handia egin dugu azken 10 urteotan Hernanin, herri mailan, Eskola Kirolak duen garrantzian sinistuz eta Eskola Kiroleko programa bateratu, hezigarri zein erakargarri bat landuz elkarlanean. Beraz, derrigortasuna ezabatzean eta partaidetza aukerakoa izatean errealitateak erakutsi dizkigun partaidetza datu eta kopuruak ikusita, hausnarketarako tartea hartzea ezinbestekotzat ikusi genuen.

Gai honek kolektibo ezberdinetan sortzen dituen iritzi “kontrajarriez” jabetuz, gaia ikuspegi orokorrago batetik lantzea pentsatu genuen jarduera

fisikoak haurtzaro garaiko osasunean duen eraginarekin lotuz. Horretarako 3 arlo ezberdinetan adituak diren 3 pertsona gonbidatzea erabaki genuen hausnarketa hau arlo ezberdinetatik aztertzeko: Ekain Zubizarreta, EHUKo irakaslea eta AKTIBOKI ikerketa taldeko kidea, Unai Asurmendi, Gipuzkoako Foru Aldundiko jarduera fisiko eta kiroletako planifikazio teknikaria eta Amaia Aristizabal, Hernaniko osasun zentroko pediatra.

Amaiak obesitateak eta sendentarisismoak dakartzan arazo eta arriskuez hitz egin zuen eta mundu mailako, Espainiako eta Hernani eta bailarako datu esanguratsu zein kezkarriak erakutsi eta azaldu zizkigun. Ekain jarduera fisikoaren

inguruan aritu zen, eskola zaharrak zer zioen eta gaur egungo ebidentziek zer dioten azaldu zuen. Errendimenduaren inguruan ere hitz egin zuen eta espezializazio goiztiarrak (kirol bakarria, klubean) eta multikirolak (Eskola kirola) dituzten eraginak azaldu zituen ikerketek erakutsi dituzten datuen arabera. Azkenik Unaiak, gaur egun

martxan dauden egitasmo ezberdinek zer bilatzen duten eta nola saiatzen diren haurra erdigunean jarriz erantzun oso bat ematen gaur egungo errealitateari azaldu zigan.

Datu eta azalpen oso interesagarriak eman zizkiguten 3 hizlariek eta gustora egon ginen eztabaidan gai ezberdinak jorratuz eta hausnartuz.

Eskolara bertaratu ginen guztiok iritzi berekoak ginen Eskola Kirolak edo multikirolak duen garrantziaren sinismenean eta errealitateak erakutsitako datuen kezkatik hausnartu eta eztabaidatu genuen, baina oso gustora aritu ginen benetan.

Saioaren amaieran, gure artean gehien nabarmendu genuen galdera edo kezka ondorengoa izan zen: arlo ezberdinetan egindako ikerketa zientifiko guztiak hain argi erakutsi badute Eskola Kirola edo multikirolaren filosofiak eta egitasmoak zenbat onura dituen (kirol bakarreko errendimendua edo espezializazio goiztiarrekin parekatuz), nola da posible azken urteetan legez indarrean sartu diren arau berriak kontrako norabidea indartzen dutenak izatea?

Mila esker etorritako guztiei eta mila esker batez ere Amaia, Ekain eta Unairi.





**Hernaniko
Hezkuntza
Plataforma**